

# ILUSTRATZAILEAREN TXOKOA

## ESTIBALITZ JALON

### AIETE KULTUR ETXEA

2014KO IRAILAREN 17A – ABENDUAREN 14A

2012ko urrian Aiete Kultur Etxean **Ilustratzailearen Txokoa** inauguratu zenetik bertatik igaro dira Iban Barrenetxea, Eider Eibar, Elena Odriozola, Antton Olariaga, Maite Gurrutxaga, Aitziber Alonso eta Jokin Mitxelena. Hurrengo artista Estibalitz Jalon ilustratzailea izango da.

Ilustratzailearen Txokoa proiektua Galtzagorri Elkartearen eta Donostia Kulturaren arteko elkarlanaren emaitza da, eta ilustratzaileen lana aintzat hartzeko helburua du.

Erakusketako erakustokiek armairu, ispilu, pendulu erloju eta kutxa forma dute. Bertan, ipuinetarako egindako ilustrazioez gain, artista hauek inspiratzen dituzten liburuak, objektuak, eskulturak, altxor txikiak eta abar erakusten dira.

IFK-CIF  
Q20005  
411  
6634n  
VI  
2009-  
11

## ESTIBALITZ JALON (1984)

### Biografia

Estibalitz Jalon arabarrak etorkizun oparoenetako bat dauka haur eta gazte literaturaren ilustrazioan. Ustekabeen heldu zen ilustrazioaren mundura, hala egitea gomendatu zion irakasle baten eskutik. Diseinuko Goi Eskolan Ilustrazio ikasketak egin ondoren, mundu profesionalean hasi zen lanean.

### Sariak

**2009.** urtean, euskarazko haur bilduma baten sormen proiektu onenaren **III. Etxepare Saria** eskuratu zuen "**Las historias de la abuela Catalina**" (**Kalandraka arg. · Pamiela**) liburuarekin. Hauxe da bere liburu kutunena, bere amonari, liburuaren protagonistari, eskainita dagoelako.

2010. urtean, **IBBYren Nazioarteko 32. Kongresuan**, "**100 de Hoy**": **Ilustradores y escritores de literatura infantil y juvenil de Estado Español** erakusketan parte hartzeko aukeratu zuten. **Bi urtez jarraian (2013 · 2014)** Euskadi, Nafarroa eta Iparraldeko haurrek JUUL saria eman diote, euren ilustratzaile gustukoenetako bat bezala aukeratu eta gero. Sari hau oso berezia izan da berarentzat, literatura hauteskunde batzuetan parte hartu ondoren, saria haurrek ematen dutelako.

### Bibliografia

2007. urtean lehen lana argitaratu zuenetik, hogeit hamar liburu baino gehiagoren ilustrazioa egin du, besteak beste:

**"Katalina kontalari"** (**Kalandraka arg. · Pamiela, 2010**) eta **"Iputargien festa"** (**Denonartean arg., 2012**) –Iñaki Zubeldiak idatziak–, eta **"Kristalezko bola berezi berezi bat"** (**Erein arg., 2013**) –Toti Martínez de Lezeak idatzia–.

Bere liburuetan kolorea eta sentimenduak protagonista diren magiaz betetako ilustrazioak aurkitzen ditugu.

[www.estibalitzjalon.com](http://www.estibalitzjalon.com)

IFK-CIF  
Q20005  
411  
6634n  
VI  
2009-  
11